

**JUANTXO-TXIKI JAINKOAREN SEME (24)**

*Orijenes*, antxiñako kristau-idazle famatuak ba zuan semetxo bat seaskan. Etxeratze bakoitzean, seaskara urbildu eta bere Juantxo-txikiri musu bat emoten ei eutson bular-gaiñean; arnasak gora eta beera zebillen bulartxoia Jainkoaren egoitza bait zalako.

Jainko altsuaren etxe-bizitza, umetxoaren biotza. Eder da. Mezatarako kalizak olio santuaz igurtzen diran antzera, igortziko dau apaizak Juantxo-txikiren bularra. Olio santu berberarekin. Kalizen antzera Juantxo-txiki be Jainkoaren gorde-leku izango da bataioaren bitartez.

\*

*Jainko-biziaren azia* bere bataioan artuko dau Juantxo-txikik. Azi txikia, azi guztiak diran bezin txikia. Azia, ordea, azteko da. Azia aziko da bere elbururaino eta bere elburua lorea da eta lorearen ondorengo igalia edo fruitua.

Bataioko azi orrek Betiko bizitzarako lore eta fruituak emongo ditu.

Azi orixe da basamortua bizi-arazten dauen ura, ur bizia. Jainkoaren seme egiten gaituena eta, seme bagera, oiñordeko be bai; Betiko bizitzaren oiñordko.

*Elburu orretara irizteko* bear diran indarrak berekin ditu azi orrek. Elburu ori mundu onetan santutasunean dago. Kristoren Gorputz-mistikoaren zati osotuak bear dogu izan.

Bide orretan zenbat galtzeko arrisku pasa bear dituen azi orrek bizitan zear! Zenbat gau luze eta negu gogor...! Gurasoen ardurak eta gurasoen otoitzak bearrezkoak ditu umetxoak; baita Espiritu Pozemoi!learen laguntza be danen aurretik. Juantxo-txikiren libertadea dala medio. Bere naiak be esan-bearrik badau.

\*

*Eginbehar ederrik* badau gurasoak Juantxo-txikiri buruz: gorputza azi, sentimentuak edertu, adimena argitu, gogoia ondu eta sendotu. Baiña, umetxoa kristau dan aldetik, badau beste agerkera bat be: bataioren bidez ereindako aziak bere elburua lortu dedin, gurasoen laguntza bearko dau.

Lan ederrik iñon bada, umeak azi eta ezitzea lanik ederrena. Negozioak eta lanbideak dirala-ta, zelan aztu dozu Juantxo-txiki, zure negoziarik onena, zure lanbiderik ederrena...!

Erreza ez dala? Ortan arrazoia dozu. Erreza ez da. Baiña, zure bizitzan gauza errezak ez diran makiña bat egin dozuz. Zure maitasun-barruan billatuko dozuz bear aiña indar eta argi. Goi-goikoak be ez dautzu faltako lan eder orretarako.

ARRINDA'tar ANES

**OMENALDIA**

Uztaillaren lenengo egunean, larunbatez, Euskerazaintza-Euskerazaleak Alkarteak omenaldia egingo dauzsoe Euskerazaintzaren Zuzendari dan AITA LINO AKESOLO'ri Dima bere errian.

Egun alaia izango da

11'tan Mezea

12'etan Jakintza-ekiñaldia

- Ondo etorria
  - Aita Lino lekaidea (Arostegi'tar Luis'ek)
  - Aita Lino Aztertzaillea (Etxebarria'tar J.M.'k)
  - Aita Lino idazlea (Onaindia'tar Santi'k)
  - Aita Lino espetxean (Dañobeitia'tar Kepa'k)
  - Gaztetxu batek Aita Lino'ren idaz-lan labur bat irakurriko dau
- 13'30'ean: Aita Lino'ren Jaiotetxean oroitarria ipiñiko da
- 14'etan: Bazkaria OBA'ko Jatetxean (Dima'n).onetarako txartelak banatuko dira.